

2026eko AURREKONTUAK:

SARRERA, kokapena:

Usurbilgo Udalak datorren urtean 14 milioi euro pasatxoko aurrekontua izango du, iazkoa baino zertxobait txikiagoa, nahiz eta sarrera arruntei dagokionez inoiz baino altuagoak izan. Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren aurreikusitako igoerak (aurreko urtean baino 460.000 € gehiago), proiektu eta inbertsioei azken urteetan lotutako kanpo-finantzaketak, maileguak eta zerga eta prezio publikoen bilketaren bilakaera positiboak (ordenantza fiskaletan %3ko igoera orokorra jaso da) udalaren aurrekontu-sendotasuna eta gastu-ahalmen handiagoa eragin dute. Ondorioz, "Herri bat: lau misio" izeneko proiektuan jasotako lau erronka handiri erantzuteko eta 2023-2027 Agintaldi Planean jasotako proiektuak gauzatzen jarraitzeko aukera emango digu aurrekontu honek. Aurrekontu anbiziotsua eta, aldi berean, arduratsua da, eta agintaldi-planaren proiektu estrategikoak bizkortzeko eta herritar guztien bizi-kalitatea hobetzeko diseinatuta dago.

Aurrekontuen azterketa xehetuari ekin aurretik, honako titularrak nabarmenduko nituzke:

- 1) Gizarte-babesa indartzen jarraitzeko egindako apustua, gizarte-zerbitzuen aurrekontua handituz, batez ere, etxez etxeko zerbitzua indartzeko eta zaintza-lanak duintzeko egindako apustuagatik.
- 2) Trantsizio ekosozialari dagokionez, eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko helburuz, Santuenea eta Zubietako arteko bidegorri proiektuari bide ematen hasteko 150.000 euroko partida jaso dugu. Halaber, landa eremua indartzeko lurak erostea eta herri bideak konpontzeko partida esanguratsuak jaso dira.
- 3) Auzoetako bizi-kalitatea hobetzen jarraitzeko bokazioa du aurrekontu proiektu honek. Auzo guztietarako daude partidak, eta nabarmentzekoa da Santuenea auzoa irisgarriagoa eta bizigarriagoa egiteko, auzotarrekin landutako auzo planari jarraiki, urbanizazioa berritzeko lanei ekingo zaiela.
- 4) Haur eskolako eraikina zaharberritzeko 400.000 euroko partida, aurretik zetorren kreditu konpromisoa osatuz. Orotara, milioi bat euroko inbertsioa, urte hasierarekin batera, bideratuko dena.
- 5) Aurrekontuak igoera nabarmena izango du euskararen sustapenaren arloan, izan ere, datorren urtean euskararen normalizaziorako plan estrategikoa osatu nahi da, herriko euskalgintza eta euskaltzaleekin..

Bestetik, nabarmendu nahi dut oposizioak egindako ekarpen gehienak jaso direla, eta auzoetatik egin zaizkigun eskaera askori bide emango diegula. Udal Gobernuak oposizioaren ekarpenak entzun eta akordioetara iristeko borondatea erakutsi du. Horren seinale da, batetik, PSEk aurkeztutako emendakinetan proposatutako gastu gehikuntza guztiei bide eman diegula, auzoetako inbertsioei 40.000 € gehiago gehituz; eta, bestetik, EAJk proposatutako 8 emendakinetatik 4 onartu ditugula, 200.000 euroko gastua onartuz (guztira 360.000 € proposatzen ziren). Edonola ere, ez onartzeko arrazoen artean esan behar da: kasu batean partida jasota dagoela kanpo auditoria egiteko, komun publikoa aurreikusten dela eraberritutako haur eskolan, eta Txaramuntoko autobus-geltoki inguruko arazoei konponbidea emateko proposamen ezberdinak lantzen ari garela.

Aurrekontu proiektuaren azterketa xehetua:

SARRERAK

- **2026ko sarrerei dagokionez**, Usurbilgo Udalak datorren urtean 14 milioi pasa euroko aurrekontua izango du: **14.348.103,59 €**, iaz baino 787.000 € gutxiago. Edonola ere, oso aurrekontu altua izaten jarraitzen du.
- **Sarrera arruntak inoiz baino altuagoak** izango dira, baina ez dira inoizko aurrekontu altuenak izango. Zergatik?
- Zergatik, beraz, beherakada inoizko diru-bilketa altuena izan denean eta foru funtsetik jasoko dugun dirua inoizko altuena izango denean? Iaz ez-ohiko bi diru-sarrera garrantzitsu izan genituen: batetik, **Zapategi** eremuko (Michelin alboko partzela) garapen industrialetik eratorritako hirigintza aprobetxamendu gisa, **861.189 €** jaso ditu udalak aurten; bestetik, **Gauzatu Energia** programako mailegua eskatuta, **300.000 €** - ko diru sarrera aurreikusi genituen (helburua argi da: jauzi kualitatibo

bat ematea efizientzia energetikoaren alorrean, eta kaxkoguneko argiteria guztia LEDera pasatzeko inbertsioa egitea ahalbidetzen digu mailegu horrek)

- Beraz, 1.161.000 €-ko ez-ohiko diru sarrera konputatu genuen iaz; aurten ez daukagu ez-ohiko diru sarrerarik. Egon daiteke, baina ez dugu aurrekontuan aurreikusi: Lasarteko udalarekin sinatutako hitzarmenaren ondotik, Atsobakar inguruko partzelaren salmenta jasotzen duena, 411.000 € jasoko ditu udalak, HAPOa behin behitokoz indarrean sartu eta hilabete ingurura.
- Aurtengo diru-sarreretan nabarmentzekoa da **foru funtsaren igoera**: Hori izaten da udalon diru sarrera nagusia (diru sarreraren herena baino gehiago), eta datorren urtean **6.165.093 €**-tik jasoko ditugu, aurreko 460.000 € gehiago. Gainera, adierazi zaigunez, 2025eko likidazioan aurreikusi baino 100.000 € gehiago jasoko dugula esan zaigu.
- **Kanpo finantziazioaren lanketa**. Azken urteotan lanketa handia egin da udalean Europako funtsetatik eratorritako dirulaguntzetara edota bestelako dirulaguntza lerroetara esku artean ditugun proiektuak aurkeztu, eta kanpo finantziazioa lortu dugu. Aurten ere bide berean jarraituko dugu: hainbat eta hainbat proiektu jada oso aurreratuta ditugu, eta Elkargunearen edota Zubietako bidegorriarentzako finantziazioa lortzen saiatuko gara. Zuhurtziaz, diru-sarreretan ez ditugu kontuan hartu, deialdiak publikatu gabe daudelako.
- Gainerakoan, **ordenantza fiskaletan** onartutako KPlaren araberako igoera orokorra ezarri da. Prezioen garestitzeak udaloi ere gogor ari zaigu kolpatzen, eta, ondorioz, azken urteotan udalak eskaintzen dituen zerbitzu publiko bakoitzaren gaineko azterketa ekonomiko zorrotza egiten ari gara, eta balantze hori eskutan erabaki dugu **2026rako tasa, zerga eta prezio publikoei KPlaren araberako igoera orokorra ezartzea, hots, %3** (2025eko uztailean zegoen erreferentzia), **hobari sistema indartsua mantentzearekin batera**.
- Hainbat tasetan diru-bilketak gora egingo du, hartutako erabakien ondorioz:
 - Hondakin-tasa: %15eko igoera aplikatuta, guztira, 788.000 € (iaz baino 100.000 € gehiago)
 - uraren arazketa. Duela bi hasi ginen arazketagatik ere kobratzen. Estolderia eta arazketagatik 530.000 € (iaz baino 9.000 € gehiago).
 - OHZ %150 errenergua etxebizitza hutsei: aurten errenergua aplikatuta: 61.000 €
- Gogoratu **udalaren hobari-sistema**: igoera hori apenas nabaritu duite hobariak jasotzeko aukera duten familiek. Ordenantza fiskaletan hobariak jasotzeko eskubideak eta aukera oso zabala da. Erreferentzia gisa hartzen dugu Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata: gaur egun 1.184 €koa da. %50 eta %90 arteko hobariak jasotzeko aukera. Une honetan 200 familia inguru dira hobaridunak.

GASTUAK:

Aurrez esan bezala, diru sarrerak gutxitzearen ondorioz, gastuak ere gutxitu egin behar izan ditugu, eta jaitziera nabarmenena VI. Kapituluak, inbertsioen kapituluak, nozitu du. Edonola ere, aztertu dezagun banan bana kapituluak:

Kapitulukako edota sailez saileko egitasmo aipagarriak:

Lehen kapituluak, berriz ere, gure aurrekontuan pisu handia izaten jarraitzen du: aurrekontu osoaren **% 35,39** hartzen du (**5.078.021,79 €**), iaz baino 130.000 € gutxiago. Apunte batzuk egin behar dira:

1) Iaz ez bezala, aurten **ez da aurreikusi langileen soldata igoerarik**. Oraindik Espainiako Gobernuak ez du ez negoziatu ez finkatu datorren urteko soldata igoera zenbatekoa izango den, eta, ondorioz, aurrekontu proiektuan ez aurreikustea erabaki dugu. Esan beharrik ez dago, soldata igoera hitzartuko balitz, udal honek aplikatu egingo lukeela, eta bere remanentean diru erreserba bat egingo du horretarako, 2025eko diru kontuak likidatu eta gero.

2) Kontratazio/lanpostu berriak aurreikusi dira:

- Brigadan lanpostu berri bat sortuko da: iturgina. Azken urteotan inbertsio handiak egin ditugu herriko ur sisteman. Askotan diogun bezala, uraren alorrean, Usurbilen herri burujabea da (Andatzako ura Usurbilgo etxebizitzaren %62ra iristen da egun). Ondorioz, ur azpiegituraren kontrolerako baliabide pertsonalak handitu ditugu: ur sistema osoaren kudeaketarako ezinbesteko lanpostua, eta brigadako lan karga arinduko du.
- Berdintasun/aniztasun teknikaria: Egun programa baten bidez dugu kokatua lanpostu hori. 2026ko maiatzean bukatu egiten da, eta postu estrukturala dela ulertuta, 2026ko plantilla organikoan sartuko dugu (diruaren zenbatekoan ez du apenas eraginik)

Bigarren kapitulua: kapitulu honek, **gastu arruntari** dagokion kapituluak, gora egiten jarraitzen du (igo den kapitulu bakarra da, ia 200.000 € gehiago): **6.434.778,65 € - aurrekontu osoaren % 44,85.**

Bi arrazoi daude: prezioen garestitzeak eragindakoa + legealdi planean ditugun hainbat egitasmo bideratzeko aurreikusitako partidak daude.

Lau atal handitan banatu dezakegu kapitulu hori:

1) Udalaz gaindiko erakundeei euren zerbitzuak ordaintzeko partidak, esate baterako, garbitania, Añarbe, San Marko, GHK hondakinen kudeaketa... (adibideak)

- Hondakinen bilketa + kudeaketarekin lotutakoak:
 - Garbitania: 809.000 € (iaz baino 21.000 € gutxiago)
 - San Marko mankomunitatea: organikoaren tratamendurako 160.000 € (iaz baino 20.000 € gehiago) + 90.000 € (Usurbilgo udalak SM mankomunitateari ordaintzen dion kuota)
 - GHK: 110.000 € (iaz baino 25.000 € gehiago)
- Añarbe:
 - ur zikinen saneamendua (Añarbe): 140.000 €
 - edateko uraren hornidura: 90.000 €

2) Herriko eta eraikin publikoetako hornidura gastuak: argindarra, gasa, aseguruak, igogailuak...

adb:

- argiteria publikoa: 100.000 € (azken urteotan egindako inbertsioei esker, 45.000 € gutxiago)
- eraikin eta lokal publikoetako argindar gastuak: 350.000 € inguru
- festetarako materiala: 35.000 €
- zoladura, hiri altzarien mantenua...

3) Herritarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzu /eskaintza publikoak: adibide batzuk:

- kiroldegia lotutako zerbitzuak: kirol ikastaroak eta sorospena+ garbiketa + harrera: 770.000€
- haur eskola: 422.120 € (irailera arteko kalkulua da, den ondo bidea, irailean partzuergoan hasi beharko genuke)
- Euskara: haur eta nerabeen euskara errefortzuetarako: 35.000 €
- Gaztelekua: 53.000 €
- Emakumeen etxeko programaziorako: 50.000 € (emakumeen ahalduntzerako programak + aholkularitza ezberdinak...)
- 650 Usurbilbizi proiektuaren dinamizazioa: 59.000€ (lizitazio bidez Noauak egiten du)
- Tokiko merkataritza eta ostalaritzaren sustapena: 23.500 € (lizitazio bidez Siadecok egiten du)
- Hezkidetza programak: 30.000 €

- Aniztasuna (aholkularitza juridikoa): 10.000 €
- Hirigintzako proiektu berriak egiteko + obra zuzendaritzak: 110.000 €
- Taxibusa: 35.000 €
- bide bazterren garbiketa: 24.000€
- zaintza zerbitzuak, eta igoyerarik nabarmenena **etxez etxeko zerbitzuak izango du: 303.000 €**
- Urteotako **lanketa kolektiboak** ahalbidetu du pertsonak ardatz dituen zaintza ereduaren implementazioan aurreraurratsak egitea, eta zaintzaren bueltan lanean ari diren eragile eta baliabide guztiak **ekosistema** batean egituratzea.
- Une honetan, beraz, trantsizio fasean gaudela esan dezakegu: Zerbitzu soiletan oinarritutako arreta eredutik, "**Pertsona bat-bizi plan**" bat eredura ari gara transitatzen. Horixe da zaintza arreta eredu berria barnebiltzen duen helburua, eta implementatzen hasi garena.
- Bi oinarriren gainean eraikitzen ari garena:
 - 1) Zaintza behar duen pertsonaren nahiak eta lehentasunak erdigunean jarrita,
 - 2) Zaintzailearen zaintza erdigunean jarrita, alegia, zaintzaile profesionalen lan baldintzak duintzea da gure helburua.
- Martxoan, Sutegin egindako ekitaldian esan genuen bezala, zaintzaren eraldaketa osoa eta integrala izango bada, ezinbestekoa da herrian eskaintzen ditugun zaintza edo arreta zerbitzu guztiak pixkanaka-pixkana eredu honetara lerrokatzea. Horretan hasita gaude, eta lehentasuna etxez etxeko zerbitzuan jarri dugu.
- Hala, azken hilabeteetan etxeko zaintza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, urrats garrantzitsuak eman ditugu udalean: batetik, zerbitzuaren arautegi berria behin-betikoz onartu da eta une honetan martxan dago lizitazio berria.
- Gainera, hilabete hasieran publikatu da buletin ofizialean Usurbilgo etxeko zaintza zerbitzuko langile batzordeak enpresarekin lortu duen tokiko lan hitzarmena. Hitzarmen horretan sustapen lanak egin ditugu udaletik, eta hitzarmenak ahalbidetuko du langileen lan baldintzak hobetzea. Udalak tokiko lan-hitzarmen hori babesten eta txalotzen du. Aurrerantzean, beraz, lizitazio berritik etxeko zaintza zerbitzua bideratuko duen enpresak tokiko lan hitzarmen hori bete eta errespetatu beharko du, udalaren lizitazioan jaso den bezala.

4) Legegintzaldiko planetik eratortzen diren proiektuak:

- Euskara: Euskararen plan estrategikoa osatzeko parte-hartze prozesua: 18.000 €
- Haurren kontseilua, Oinherriekin batera martxan jarri nahi den proiektu pilotua: 18.000 €
- Jolasguneen parte-hartze prozesua: 18.000 €
- Misioen baitako gobernantza eredu eraikitze prozesua: 24.000 €
- Artxiboaren txukunketa eta digitalizatorako: 3 urteko lizitazioa abiatu, eta datorren urtean 62.000 €. azken urtea da. Lana bideratzen ari da, eta datorren urtean artxiboa GZ lokalera pasatzea aurreikusten dugu, Barrenkaleko obrak amaitzen direnean. Artxiboa digitalizatuta eta datu basean gordeta. Lan erramienta, bai udal langileentzat bai herritarrentzat,
- Nekazaritza: lurren erosketa: 25.000 €

- Eskola kirolaren gaineko hausnarketa: 8.000 €

III. Kapitua: maileguko interesak: 40.000 €. Zergatik egin behera? Egun ditugun maileguaren interesak. 2.700.000 €-ko maileguari lotutakoak oraindik ez gara ordaintzen hasi, eta aurreikusten da udazkenetik aurrera hasiko gara erabiltzen, obrak hastearekin bat. Orduan ordainduko dira lehen interesak.

IV. kapitua. Berdintsu geratzen da kapitulu hau, **1.169.303,15 €** bideratuko ditugu dirulaguntza ezberdinetara, aurrekontu osoaren % **8,15**. (*beherakadaren arrazoia: Agiñara kulturarako bideratzen den diru kopurua kooperatibarekin sinatutako hitzarmenean sartu da, eta 2026an ez du partidarik, 2025ean bideratu delako dena, V. kapitulutik*)

- Azaroko osoko bilkuran onartuko da 2026-2028rako plan estrategikoa, eta han daude jasota departamendu bakoitzak dirulaguntzetan bideratzen duen zenbatekoa, dirulaguntza lerro eta mota ezberdinen bidez. Orotara, **miloi bat inguruko proposamena** (1.031.060€) egiten du. Honatx departamenduka, eta hitzarmen edo dirulaguntza lerro nagusiak:
- Euskara departamendua: **133.100 €**
 - Noaua hitzarmena (aldizkaria + webgunea sustatzeko): 74.000
 - euskararen doako irakaskuntzarako: 24.000 €
 - AEK: 15.000€
- Garapen Ekonomikoa: **156.500 €**
 - Hurbilago elkarrekin hitzarmena : 25.000 €
 - lokal hutsetan jarduera ekonomiko berriak ezartzeko: 30.000€ (3. lerro berri bat sortu nahi dugu, erreleboa lantzeko)
 - Beterri Buruntzako mankomunitateari ekarpena: 97.000 € (iaz baino 21.000 € gehiago)
- Gazteria: **4.500 €**
- Gizarte Zerbitzuak: **123.260 €**
 - Gizarte Larrialdietarako Laguntzak: 60.000 €
 - 3 jubilatutako elkarrekin: 25.000 €
 - hitzarmen berri bat ari gara lantzen: Inurri elkarrekin (minbizia duten emakumeen elkarrekin)
- Aniztasuna: **53.000€**
 - garapen bidean dauden herrialdeentzat: 43.000
 - ekintza humanitarioentzat: 10.000 (Palestinako herriari partida honetatik bideratu izan zaio laguntza)
- Hezkuntza: **69.000€**
 - Zumarte: 6.4000 € gehiago
- Etxebizitza: **30.000€**
 - Merkatuko libreko alokairuak ordaintzen laguntzeko: 10.000
 - igogailuak instalatzeko: 20.000 (VII. Kapitulan doaz)
- Ingurumena: **23.000 €**
- Kirola: **139.000 €**
 - kirol klubentzat, norgehiagokako laguntzak: 60.000 €
 - eskola kirola: 66.700 €
- Kultura: **210.000 €**
 - kultur sormena: 17.000
 - Auzoetako jai batzordeak: 51.000 €
 - kultura norgehiagoketa: 80.000
 - Orbeldi dantza taldea: 14.000 €
 - Buruhandien konpartsa: 13.000 €

- Nekazaritza: **65.000 €**
 - sagardoa: 30.000 €
- Lankidetzeta hitzarmenak: Aginagako kooperatibarekin (urtean 70.000 € inguru – 2026an ez dago, dena 2025ean ordaindu delako) + Zabalduz kooperatibarekin hitzarmena, auzozaintza + harEman proiektuak garatzeko 78.000€

V. kapitulari edota kreditu globala: Hasierako proposamenean 100.000 € jasota bazeuden ere, oposizioak aurkeztutako emendakinei bide emateko, partida horretatik hartu da finantziazioa. Ondorioz, hutsik geratu da. Edonola ere, udal gobernuaren konpromisoa da 2025eko likidazioaren ostean, kreditu aldaketa egitea eta berriz ere 100.000 euro bideratzea.

VI. kapitulua. Kapituluaren errebaso honetan ikus daitekeenez, VI. Kapituluak izan du beherakadarik handiena, aurreko urtearekin alderatuz gero: **1.163.000,00 €**. Hala ere, diru kopuru esanguratsua da, oraindik ere, inbertsioetarako bideratuko dena. **2026ko aurrekontuetan jaso diren inbertsioak. Lehentasunak:**

- haur eskola berritzeko: 400.000€ (kreditu konpromisoa. Guztira milioi bat euro). Une honetan exekuzio proiektua amaitzen. Urte hasieran lizitatu nahi ditugu obrak.
- IUPIko (Irisgarritasun Unibertsalerako plan integrala) esku-hartzeak:
 - herriko altzari/zoladurak: 75.000 €
 - santueneko urbanizazioa: 190.000 €
- Troiako aldapa: muruaren egonkortzea: 72.000€
- Nekazaritza: landa bideen konponketa: 40.000 + lur erosketa 25.000 €
- Auzoekin hartutako konpromisoak:
 - txikiardi: 30.000
 - zubieta: 20.000
 - agiña: 40.000
- Zubietako bidegorria: 150.000 € (lurren kudeaketarako partida)
- oso handia da udal honen inbertsio ahalmena: une honetan inbertsio asko ari gara exekutatzen edota aurreikusten dira hurrengo hilabeteetan egitea. **Guztira: 7 milioi baino gehiago**
- Une honetan edo epe motzean martxan jarriko diren obra/inbertsioak:
 - kale nagusiko igogailua: 800.000€ inguru
 - Kirol ekipamendua: skate park (140.148€)
 - Agiñako saneamendua: 384.865 €
 - Barrenkaleko lokala (Gz + udaltzainak): 384.000
 - San Esteban kalearen 2.fasearen urbanizazioa: 230.000€
 - Haranerrekako zubia + bidearen argiztatzea: 30.000 €
 - udaletxeko espazioaren berrantolaketa: 75.000€ (urtea amaitu aurretik hasiko gara)
 - Galardiko autobus geltokia + zebrabidea: 25.000 €
 - urtea amaitu aurretik martxan jarriko den lizitazioa: argiteria publikoa LEDera pasatu: 300.000 €
 - Agiñako enbarkaderoa: lur erosketa + pantanalaren obra (155.000€ inguru). Costasen txostenaren zain, obren lizitazioa bideratzeko.
 - Urriko plenoan kiroldegiko obrak bideratzeko kreditu aldaketa egin genuen: 641.000 €. urtea amaitu aurretik bideratu nahi dira obrak, igerilekua eta saunaren zerbitzuak ahalik eta azkarren berrezartzeko. Edonola ere, udazkenera arte nekez ireki ahal izango dira.
 - 2026ko kuota ordaintzea egokitzen denean %25eko konpentsazioa egingo zaie bazkide guztiei.
 - Legealdiko inbertsiorik garrantzitsuena: Harrobitxulo, proiektu estrategikoa/izarra: 2,5 milioi euro. Une honetan exekuzio proiektua idazten. Dena ondo bidean, udaberrian lizitatu nahi ditugu obrak.

- 2026an zehar egin asmo ditugun kreditu aldaketak. Horretarako, ezinbestekoa da kiroldegiko suteko gaia argitzea:
 - padel pista: 150.000
 - santueneko urbanizazioa: diru gehiago bideratu beharko da. Exekuzio proiektua amaitzen ari gara.
 - Hilerrian aparkaleku berria egin: 60.000€
 - liburutegiko obra: 120.000 €
 - San estebango bidea konpondu: 150.000 €

VII. Kapituluak: kreditu transferentziak:

- Txokoaldeko zubia eraikitzeko, ETS eta udalaren arteko hitzarmena oinarri, 3 urtetan (2024-2025-2026) udalak 300.000 € bideratu behar ditu:
- igogailuak instalatzeko dirulaguntzak: 20.000 €

IX. Kapituluak, 200.000 € aurreikusten dira, Zumarte Musika Eskolako obra egiteko udalak eskatu zuen **mailegua** ordaintzeko. Beraz, inbertsio berriei ekin ez ezik, mailegu hori amortizatzeko ahalegin handia egiten ari gara, udalaren zorpetze tasa gutxituz. Bi kuota falta dira ordaintzeko: 2026ari dagokiona eta 2027ari dagokiona. 2027an bi maileguren kuota pilatuko zaizkigu: zumarteren azkena eta Elkargunearen lehen kuota.

MISIOEN ARABERA UDAL JARDUNAREN ARABERA:

ZAINTZA: 534.600 €

- Azken urteotan aurrerapauso inportanteak eman ditugu pertsonak ardatz dituen arreta ereduaren inplementazioan eta horren jira-biran eraiki beharreko zaintza ekosistemaren eraikuntzan.
- Une honetan Gizarte Zerbitzuen departamenduan trantsizio betean gaude **persona bat/zaintza plan bat** ikuspegitik lan egiteko: Zaintza arreta eredu berria barnebiltzen duen helburua da. Hau da, menpekotasun balorazioen araberrako prestazio eta zerbitzuen logika eta antolaketa alboratu, eta pertsonen beharrak aintzat hartuko duen ibilbide integral (persona bat-bizi plan bat) baterako logika eta begiradatik hasi gara lanean. Trantsizioan gaude.
- Aurtengo helburuak: ekosistema egonkortzea + ethez etxeko eredu berria martxan jartzea + bizi osorako etxebizitzak martxan jartzea (oraintxe gaude esleipen prozesuan)

650USURBILBIZI PROIEKTUA: 87.000 €

- Kultura, euskara eta herri-identitatea, tokiko ekonomiaren motor bilakatzeko helburuz, 650 Usurbil Bizi herri proiektua osatu genuen. Ekonomia lokalari bultzada eman nahi diogu, eta horretarako, turismo eredu berritzaile eta turismo plan eta eskaintza oso bat ari gara garatzen, gure herri identitatean, baloreetan, ondarean eta martxan ditugun proiektu eraldatzaileetan oinarrituta.
- Gure herriaren erakusleihu izan nahi duten hainbat arlo/esparru garatu ditugu, eta horren araberrako eskaintzak osatu: Usurbil museo irekia, Zumetaren muralaren 50.urteurrena ardatz hartuta, Zaintzaren usurbil, zero zaborren usurbil, Elizarekin egindako hitzarmenari esker, ondarearen usurbil, Memoria historikoaren usurbil (bi ibilbide osatu: Andatzan lubakien ibilbidea + herriguneko gerraren ibilbidea), Sagardoaren usurbil...
- **Datorren urtean lehentasuna: “Errioaren Usurbil”** atalak izango du: 2025eko aurrekontuetatik bideratu genuen enbarkadero bat egiteko proiektua (lur erosketa + eraikuntza, 150.000 € inguru) eta orain errioiari begirako eskaintza osatu nahi dugu, Begi Bistanekin lankidetzan.
- Bestelako partidak ere baditugu, kulturean, sagardoa, otarrak...

UDALA, GERTU: 200.000 €

- udalaren digitalizazioarekin eta herritarrei eskaintzen diegun arreta hobetzeko hainbat partida jasota daude:

TRANTSIZIO EKOSOZIALA: 270.000€

- Klima aldaketaren erronka globalari, tokikotik erantzuten jarraitzeko inbertsioak eta proiektuak ere jasotzen dira, nabarmentzekoa, Santuenea eta Zubieta arteko bidegorri proiektuari bide ematen hasteko partida.